



## 10) KOSTUEN EGITURA

Enpresa-munduan, kostuak zenbaki soilak baino gehiago dira; gure produktu eta zerbitzuen kalitatea babesten duten erabaki estrategikoak dira.

Enpresa baten kudeaketan, hainbat kostu mota eragiten dute produktuaren funtzionamenduan eta kalitatean. **Hasierako kostuak**, produktua sortu ahal izateko egiten den inbertsioa/finantzaketa da. Bestetik, **kostu finkoak**, hala nola errenta, soldatak eta zerbitzu publikoak, konstanteak dira, ekoizpena edozein dela ere. Azkenik, **kostu aldakorrak**, hala nola materialak eta eskulan gehigarria, eskariaren arabera aldatzen dira. Marketinaren esparruan, publizitatearen kostuak eta edukiaren garapena barne hartzen dituzte.

Langileen trebakuntza eta garapena funtsezkoak dira, kalitate-bermearekin lotutako kostuekin batera, estandar altuak mantentzeko. Kostu horiek modu eraginkorrean kudeatzeak eragiketarako optimizatzea eta kalitatezko produktuak edo zerbitzuak eskaintzea ahalbidetzen die enpresei. Hurrengo tauletan, gure kostu-egitura osatzen duten osagaiak adieraziko ditugu.



### Hasierako Kostuak

Enpresaren hasierako diru inbertsioa (parteide bakoitzarekiko)	-1500€ parteide bakoitzak
Merkataritza erregistroa	-144€
CIF	Dohainik
Publizitatea	<p>0,29€ albisteak atalean [Newsfeed]  0,046€ facebook teknologia erabiltzen duten app-etan [Ez instagram]  0,17€ dolar mugikorerrako berrien atalean.  0,29€ albiste zutabetan</p> <p>Interakzioa argitalpenetan: 0,018€  Mezuak: 0,037€  Bideo-erreproduzioak: 0,046€  Trafikoa (klik): 0,046€  Marka ezagutzea: 0,064€  Irismena: 0,1€  Bihurketak: 0,12€  Bisitak negoziotan: 0,13€  Katalogoaren salmentak: 0,15€  Bezero potentzialak sortzea: 0,17€  Aplikazioak deskargatzea: 0,20€</p>



	1,16€-ko batez bestekoa 10.000€ guztira publizitate osoa
Web gunearen eguneraketa eta matenimendua	744€
Aplikazioa sortzea eta mantentzea	18.000€
Storetan publikatzea	App Store 90,76€ urtero Play Store 22,92€
Langileen soldata	1.200€
Sofware eta serbidore lizentzia	400€ -12000€

### **Kostu aldakorrak**

Soldatak	Soldata>1200€ (Enpresak handitu egiten badu eta etekinak hobetuz gero)
Hodeiko ostatu-gastuak	50TB→819,63€ – Gure kasua edo merkeago, gure aplikazioa ez baita konplexua, ondorioz merkeagoa izango zen. 450TB→7089,80€ ...
Hirugarrenen zerbitzuak	Hirugarren zerbitzu hori ematen duten enpresen araberakoa
Publizitatea ( minimoa kontuan hartu gabe, hau da, ditugun bezero, interakzioak eta etekinaren arabera)	10.000€-15.000€

### **Kostu finkoak**

Web gunearen eguneraketa eta matenimendua	744€
Aplikazioa mantentzea	18.000€
Soldata	1.200€
Sofware eta serbidore lizentzia	400€ -12000€
Publizitatea (minimoa)	10.000€